



I. ATALA TXILLARDEGIREN LANAREN OMENEZ

>>>

6

TXILAR SORTA BAT

Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea

Helbide elektronikoa: izarrekoa@euskalnet.net

Herri zapalduen askapenetan era askotako aitzindari eta buruzagiak ageri zaizkigu historian. Era askotako soslaiak. Batzuk nazio-arazoaren auzi batzuetan murgilduagoak, beste batzuk beste batzuetara lerratuagoak. Eta horietako askoren soslai politikoa, ideologikoa eta kulturala aztertzen hasiko bagina, gutxitan aurkituko genuke halako oreka eredugarriarik. Gauza batzuetan ez bada, beste batzuetan herren zebiltzala konturako gara berehala.

Zertara dator sarrera hori, ordea? Txillardegik orekaren oreka dela aitortzeko? Ez gaitezen koipekeriatan has. Baina ez didazue ukatuko, hala ere, gauza bat behintzat: inork gutxi bete du orekaren soslai hori Txillardegik bete duen neurri eredugarrian abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren bide malkartsuetan. Euskal aberriaren osotasuna izan du helburu eta erreferentzia, eta baldintza hori oso gutxi bete du gurean. Euskaltzalea oso euskaltzalea izango zen, beharbada, eta abertzalea oso abertzalea, agian, baina oso gutxi izan dira gure artean euskal herriaren alderdi etnolinguistikoa, etnokulturala eta etnonazionala hain modu orekatuan garatu dutenak. Txillardegik, alderdi horretatik begiratuta ere, aparta izan da, aparta da.

Hemen Txillardegiren sorta oparo eta zabaletik bilketa-lan apal bat egin nahi nuke. Ez naiz bereziki sartuko politikaren auzi-mauzietan, nahiz

eta abertzaleak zirikatzeke eta kritikatzeko aukerarik ez dudan galdu. Txilarra beste leku baten bilduko dut: hots, soziolinguistikaren larrean. Badago non bazkatua, alajaina. Sekulakoa izan baita bere ekarpena. Ni, ordea, txilar ale berezi batzuen bila noa, horietako bakan batzuk aukeratu beharrak eraginda: Europako nazio zapaldu batzuetako hizkuntza zapalduen txilarra nola bildu duen ikusiko dugu. Nola mintzo zitzaigun, inor mintzo ez zenean, euskaraz, hemendik kanpoko herri-min-tzairen zoriaz.

IRLANDA: AMETSAK ZAPUZTU ZIRENEKOA

Noiz jakin genuen guk, demagun, Irlandako nazio-askapenaren prozesuan gertatutakoa? Nola jakin genuen gaieraz mintzo zen herriaren atarramentu hitsa? Nik behintzat, beste inon baino zehazkiago, *Euskararen Liburu Zurian*¹. Eta nola mintzo zitzaigun Txillardegiko atzerriko hizkuntza menderatuen berri ematerakoan? Ikus dezagun lehen pasartea:

“Irlandaren kasua (Eireko Estatu nazionala sortuz, hizkuntzaren araberako finkapenik gabe) Israelekoaren kontrako ereduan jartzen da, beherago aztertuko dugunez. Bertako zeltera hizkuntzaren zoria, letra hauek idazten dihardugun garaian, artean erabakitzeke dago. Halere, alde guztiek ikustera ematen dutenez, baldin eta gizaldi gazteak nazio hizkuntzaren aldeko borroka gogor bati lotzen ez bazaizkio, Irlandak, ingelesa hartuko du egiazko hizkuntza eta komunikabide bakartzat; bere askatasunaren aldeko heroiaren borondatearen aurka, Irlandako Konstituzioko testuen aurka eta zenbait irlandar alderdi politikoren agirien aurkako postura garbi batean”².

Txillardegiren aurreikuspen beltzak bete egin ziren Irlandan. Ohargarria da belaunaldi gazteei egiten dien aipamena; zuen esku dago nazio gaelikoaren zoria aldatzea. Ez da ohartarazpen txarra etxera begira jarrita egiteko ere: egungo gazte euskaldunok benetan hartzen duzue euskararen lema, edo gainerakoan, gureak egin du. Ez gaude Irlandan bezain deseginak, baina eginkizunaren neurria ikusita, ez dago motiborik gazte jende euskaltzaleari Txillardegiren mezu berbera ez helarazteko.

Zer ikasi handia daukagu Txillardegiren luman. Irlandaz dihardu, baina gogoak Euskal Herrira garamatza ezinbestez:

“Hizkuntza berpiztearen mugimendua, eta baita politikazko eta militar mugimendu nazionalista ere, *hizkuntza ingelesaren* mugimenduak izan dira Irlandan. Irlandar etniaren hiltzoria, etnografia-sinpatiaz ikusi dutenen mugimenduak, baina irlandararen *beharrezkotasuna* bizitzako inongo alorretara, ez eta organizazio nazionalistetara ere, eraman ez dutenen mugimenduak izan dira”³.

*inork gutxik bete du
orekaren soslai hori
Txillardegik bete duen
neurri eredugarrian
abertzaletasunaren eta
euskaltzaleatasunaren bide
malkartsuetan.*

***Txillardegiren
aurreikuspen beltzak bete
egin ziren Irlandan.
Ohargarria da belaunaldi
gazteei egiten dien
aipamena; zuen esku dago
nazio gaelikoaren zoria
aldatzea. Ez da
ohartarazpen txarra
etxera begira jarrita
egiteko ere: egungo gazte
euskaldunok benetan
hartzen dutzue euskararen
lema, edo gainerakoan,
gureak egin du.***

Esan bezala, gogoak etxera gakartza, zoritxarrez. Gureak antz handiegi baitu hangoarekin, nahiz eta abiapuntuko baldintza soziolinguistikoak pixka bat hobeak izan. Atentzioa emateko modukoa da, oroz gain, hango eta hemengo abertzaleen hizkuntz zabarkeria izengabea. Salbuespenak salbuespen, oro har, nazio euskaldunaren izaera kulturala etnografiaren mailako balio sinbolikotzat hartu du hemen abertzaletasunak. Euskara ez da izan, han gaelera izan ez zen moduan, *beharrezko* bihurtu behar zen mintzaira, gure “abertzaletasun” sinbolikoa gizentzeko motibo baizik.

Elite nazionalistaren hizkuntz praxi etnozida era zorrotz honetan larrutzen du Txillardegik:

“Elite mailan, ez da egon izan irlandar arazoaren *identifikazio objektibo eta eraginkorrik*, irlandar kultura bereganatuz eta ingelesa benetan zapuztuz, organizazio mailan behinik behin; baizik eta badirudi gaeleradun herria giro irlandazaleetan *komunitate arrotz* bat bezala hartua izan dela. Begi onez ikusia, baina berarekin identifikatzeko erabaki sendorik gabe”⁴.

Herri zapalduak herri zapaltzailearen hizkuntza *zapuztu* behar zuela iradokitzen digu Txillardegik. Gainerakoan, herri zapaldua jaioterrian bertan herri *arrotza* bihurtzen duela herri zapaltzaileak. Baina, zein da herri zapaldua eta zapaltzailea independentzia nazionala lortu duen herri batean? Denak batera, jota eta su, ingelesak egotzi arte, eta ondoren, *askatasuna* erdietsi ondoren, betiko herri zapalduak zapalduta eta *arrotz* izaten segitu zuen Irlandan. Hori horrela izatekotan, eta, jakina, hori horrelaxe gertatu zen, zer ondorio atera behar dugu etxera so jarrita? Hitzetik hortzera independentzia eta euskal estatua aldarrikatu eta praxi etnolinguistikoan eta kulturalean batez ere espainolak edo frantsesak diren abertzaleekin nola jokatu behar dugu? Egia esan, zer pentsatu ugari ematen digu Txillardegiren kritika emankorrak. Hemen ez baitu espainola edo frantsesa “zapuzteko” gogo handirik erakusten mundu abertzaileak. Goxo sentitzen da bertan, euskararen munduan baino goxoago.

“Beranduegi”: zorioneko edo zoritxarreko “beranduegi”. Munduko hizkuntza askok, gehienek, erreka jo dute, edo jotzear daude datozen denboretan, eta aurreko hitz madarikatu hori agertzen da hizkuntza horien aldeko kontzientzia piztu denean. Txillardegik ere hartu zuen ahotan hitz madarikatu hori Irlandakoa aztertu zuenean:

“Hizkuntzaren hedadura txikia ez da aski: ez dira askoz zabalago danierarena, islandierarena, albanierarena, eta beste mila. “*Berandu hasi ziren*”, diote beste batzuek. Baina hori ere ez da egia; beranduago hasi baitziren txekiarrak, eta are beranduago juduak”⁵.

Zalantza bat daukat: txekierarena. Ez dakit abiaburuko baldintza soziolinguistikoak zer-nolakoak ziren. Nolanahi ere, Txillardegiri berari

irakurria izan diot txekieraren “argitzaileak” edo suspertzaileak “base-
rrietako eta herri txikietako semeak zirela”⁶, eta, horrenbestez, ulertu
behar genuke nekazari giroan eta herri txikietan txekiera bizirik zegoela.
Xehetasun horiek gorabehera, esan dezagun egia dela, egia biribila
bezain garratza, herri gehienetan *beranduegi* hasten direla beren berezko
hizkuntzaren alde zerbait egin nahirik. Jadanik ordezkapenaren alperrak
hizkuntza-ale nagusiak xehatu eta birrindu dituenan. Itzulbiderik gabe-
ko puntu kritikoa igarota, alegia. Herri-mintzairak beharko lukeen oina-
rriko masa kritikoa galdu ondoren. Gure ingurura begiratu, European,
zer ikusten dugu? Bakanen bat kenduta, zein hizkuntza minorizatu ez
dago itzulbiderik gabeko puntu kritikoa ingurumarian?

“Pazientzia” behar omen zen gaelera zegoen moduan egonda. Jarre-
ra horren aurrean, Txillardegiri hitzok atera zitzaizkion: “Pazientzia har-
tu zuten eta zulora joan ziren”. Gurean ere ez al da boladan dagoen hitza?
Alegia: “izan dezagun pazientzia hizkuntza-aldaketak mantsoak eta
luzeak dira eta”. Pazientzia beharra aldarrikatzen duenak, ondo egingo
luke hori eskatzea, baldin eta euskararen normalizazio-zantzu garbiak
eta ukaezinak begien aurrean bagenitu. Kontua da, ordea, pazientzia
eskaten duenak herri euskaldunaren etorkizuna modu baikorrean ikus-
ten duela, eta beste batzuek ez dugula halakorik sumatzen.

Axularren harako hura datorkigu, ondoren: alegia, *geroko gerotan ...*
Irlandako abertzaleak ere Axularrek salatu zuen bekatu berean erori
omen ziren:

“Irlandarrek *gerorako* utzi zuten hizkuntzaren soluzioa, lehenasuna
beti besteri eman zioten, irlandar postu gorenetan hizkuntza ez zekitenak
onartu zituzten, abertzale borroka eta hizkuntzaren aldeko borroka elka-
rrengandik berezi zituzten. (...) *Geroko* eta besteentzako utzi zuten gaele-
raren arazoa”⁷.

Geroko gerotan izeneko leloak zer-nolako itxura hartzen du gurean?
Puntu honetan ere izugarriko antza hartzen diot. Gure abertzaletasuna
ere obsesionatuta dago nazio politikoaren edo estatuaren fetitxearekin.
Badakizue zertaz ari naizen: alegia, boterearen baliabideak gure esku
behar ditugula, burujabe bihurtzean euskararen arazoa bideratzea erra-
zagoa izango dela, eta hari bereko argudio-andana.

Tesi hori okerra da, eta Irlanda da horren frogarik garbiena: botere-
ak, besterik gabe, ez du hizkuntza minorizatua normalizatzeko gaitasu-
nik, boterea bera ere hizkuntza- eta kultura-identitateari dagokienez, ez
delako neutroa. Botere-kontzeptuaren abstrakzioa egiten du euskal aber-
tzaletasunak oro har, alde batetik, eta, bestetik, botere hori aktibatuta sal-
bu ikusten du herri euskaldunaren zoria. Ez du ikusi nahi, ez du ikasi
nahi, ez dagoela identitaterik gabeko botererik, eta euskarazko identitatea
garatu ez duen botereak ezin duela nazio euskalduna bere onera ekarri.

*Herri zapalduak herri
zapaltzailearen hizkuntza
zapuztu behar zuela
iradokitzen digu
Txillardegik.
Gainerakoan, herri
zapaldua jaioterrian
bertan herri arrotza
bihurtzen duela herri
zapaltzaileak.*

Herri gehienetan beranduegi hasten direla beren berezko hizkuntzaren alde zerbait egin nahirik. Jadanik ordezkapenaren alperrak hizkuntza-ale nagusiak xehatu eta birrindu dituenean. Itzulbiderik gabeko puntu kritikoa igarota, alegia. Herri-mintzairak beharko lukeen oinarrizko masa kritikoa galdu ondoren.

Irlandako esperientziak gauza bat erakusten digu batik bat: jatorrizko nazio linguistikoaren biziberritze-prozesuan helburua ez dela erabakigarria, bidea baizik. Bidean erabilitako nazio-hizkuntzak erabakitzen baitu nazioak gero, independentzia lortu ondoren, bereganatuko duen izaera etnolinguistikoa eta etnokulturala. Nazio-askapenaren prozesuan erabilitako hizkuntza da faktore determinantea, ez independentziak eskain dezakeen aukera eta modua. Independentzia horrela planteatuta, fetitxe huts bat da, ezertarako balio ez duen amets hutsala.

Azken paragrafootan jorratu dugun tesiaren ildotik, Txillardegiren orduko iritzia ezagutu nahi genuke:

“Gauza ezaguna da: bideek baldintzatu egiten dute helburua. Bidea eta helburua elkarri datxezkie. Dialektika gure artean horren modan egonik, hizkuntzaren etorkizunari buruz dialektika-lege horiexen ondorio nabarmenak diren hauek nola ez diren maizago aztertzen, eta azterketaren arabera gero jokatzeko, ez da ulertzen. Zer ari gara? Aski komerial! Euskararen etorkizuna *gaur* jokatzeko da, ez bihar; *aurten*, ez geurtz”⁸.

GALES HERRIA: ELEBAKARRAK AHITZEN

Euskal Herrian ere ahitu zaizkigu milaka urtetan izan ditugun euskal elebakarrak edo euskaldun hutsak. Eta euskaltzale batzuek gertakari hori interpretatu duten moduak harri eta zur utzi gaitu⁹. Zorionekoak bide gara euskaldun hutsak galduta.

Galesen aspaldikoa da galera hori: Txillardegik emandako informazioaren argitan, 1971n %0,2 ziren galesa besterik ez zekitenak. Joan den mendearen hasierako portzentajeak ere eman zizkigun, nondik norakoaren ikuspegia osa genezan: hartara, 1911n %15,1 ziren elebakarrak jatorrizko hizkuntzan. Datu horien ingurumarian honako gogoeta hau egin zuen Txillardegik orduan:

“Elebidunek hizkuntza zeinu propiorik ez dutenez gero (gogo erabaki bat izan ezik, edo diglosiarengatik baldintzapena), egoera markatzen dutenak elebakardunak izan ohi dira eta. Horrexegatik, komunitateetako batek bere azken elebakardunak galtzen ditueneko une berean, biena ez den hizkuntza minorizatua berehalako hondamenera erortzen da, bai familia mailan eta bai nazio mailan”¹⁰.

Gure arteko euskaltzale batzuek azaldu duten iritziaren aurka, Txillardegik besterik uste zuen orduko hartan behintzat: elkarrekin ukipenean dauden bi hizkuntzetako bat hizkuntza minorizatua baldin bada, eta hizkuntza minorizatu horrek bere hiztun nagusiak —elebakarrak edota bere mundu kognitiboaren eta emozionalaren hizkuntza nagusia hizkuntza minorizatua dutenak— galdu baldin baditu, hizkuntza horrek *honda-*

meneko bidea hartuko duela iritzi zion. Hiztun elebakarrak direla, hizkuntza menderatuan besterik mintzo ez diren elebakarrak alegia, horrelako baldintza soziolinguistikoetan *egoera markatzen dutenak*.

Elebakarren *marka* hori asko interesatzen zait niri, interpretazioak zein-nahi direlarik ere. Nik zentzu jakin batean garatu nahi dut neurea. Zehazki, zentzu honetan: hizkuntza minorizatuko hiztunaren soslai psikologiko eta ideologikoa ezagututa —besteak beste, sumisiorako daukan saihestu ezinezko joera ezagututa—, Txillardegiren juzkua erabat zuzena da: hizkuntza minorizatuko hiztunak elebidun bihurtu ahala, jatorrizko hizkuntzaren gainbehera modu ia matematikoan gertatzen da munduko herri-mintzaira gehienen kasuetan. Krisiaren alarma gorria orduan pizten da zinez hiztun-herri menderatuentzat. Bitartean, elebakarrez osatutako guneari eusten zaion bitartean, dena delako hiztun-herriak badu arnabiderik bere berezko hizkuntzari eusteko. Hara, bada, gure euskaltzale modernoentzat albiste txar bat Txillardegiren harrobitik aterata: elebakarrak, hiztun erabakigarriak dira hizkuntzen erabilera zehazteko orduan, bai hizkuntza nagusiaren kasuan, eta bai herri-mintzaira diglosiakoaren atarramentuan. Bigarren kasura lerratuta, diogun, hizkuntza hegemonikoaren presioa dela medio, hizkuntza minorizatuaren hiztunak ez daukala bide bat besterik: amore eman, eta estatu-hizkuntza ofizialaren aurrean belaunikatu. Asimetriaren legeak bere logika ezartzen du hizkuntzen erabileran, eta hizkuntza minorizatuaren aldeko politikak egiten diren kasuetan ere —Euskadin, adibidez—, hiztun menderatuaren gaitasun komunikatiboa higatzen eta kamusten joan da. Ahozkoan batik bat.

Gatozen harira, hariaren muturra Galesen utzi dugu eta. Han, beste herri frankotan bezalatsu, jatorrizko hizkuntzaren krisi larriaz ez ziren jabetu bertako herri-mintzaira artean bizirik zegoen lekuetan, ezpada beste giza gune arrotzu baztuetan:

“Galesarenganako zaletasuna, hizkuntza galtzen hasten den giroetan pizten da, eta piztu, *horrexegatik* pizten da. Nekazari giroetan, galesak osotasun batean dirauen lekuetan, eta kultur eskasia ere handia denetan, hizkuntza-diferentziaren ausentzia oztopo gertatzen da kontzientzia etnikoa errotzeko. Mugimendu nazionalista, gales izatearen gorputz zati-keta mehatxatua nabari den giroetan sortzen da”¹¹.

Horratx, munduko herri-mintza gehienen zorigaitza esplikatzeko lagun diezagukeen beste elementu bat. Jatorrizko herriaren identitate-zeinuen erroak usteldu ondoren abiatzen dira biziberritze-ekimenak. Gainera, ekimenaren lema ez du hartzen benetako protagonistak: alegia, jatorrizko hizkuntzan eta kulturaren bizi den nazio etnikoak. Esku artean dugun kasu honetan, galestar hizkuntzan eta kulturaren bizi zen herria ez da ekimenaren buru, jadanik galestar identitate etnikoa edo nazionala galdua zegoen toki hiritartu eta arrotzuetan piztu baitzen kontzientziaren lehen txinparta.

Tesi hori okerra da, eta Irlanda da horren frogarik garbiena: botereak, besterik gabe, ez du hizkuntza minorizatua normalizatzeko gaitasunik, boterea bera ere hizkuntza- eta kultura-identitateari dagokienez, ez delako neutroa.

*Munduko herri-mintza
gehien zorigaitza
esplikatzeko lagun
diezagukeen beste
elementu bat. Jatorrizko
herriaren identitate-
zeinuen erroak usteldu
ondoren abiatzen dira
biziberritze-ekimenak.
Gainera, ekimenaren lema
ez du hartzen benetako
protagonistak: alegia,
jatorrizko hizkuntzan eta
kulturan bizi den nazio
etnikoak.*

Jakina, pentsatzekoa denez, horrek guztiak sekulako oztopoak ezartzen dizkio amildegian behera doan herriaren berreskuratzeari. *Txepetxek* esango zukeen moduan, biziberritze horren zinezko protagonisten ordez, herritar arrotzek hartu dute nazio askapenaren lema eskuetan. Galestar herri historikoaren subjektu nagusiak, jatorrizko hiztunak, biziberritzeko prozesuaren bihotzean jardun ordez, periferian daude, eta hizkuntzazko eta kulturazko mundu sinbolikoaren ertzetan egon behar luketen *abertzale* alienatuak, berriz, buruzagi dakuskigu.

Euskaltzaleontzat ere oso ezaguna da kontatu berri duguna. Aberzale erdaldunak, euskotarrak, izan dira eta dira gure herria *askatu* nahian dabilzan gehienak. Horietako asko elebidun, baina, hala ere, funtsean, erdaldun, azken hizkuntza hauxe dutelako kultura, ezaguera eta emozioen eremu sinbolikoan hizkuntza nagusia. Erdaraz pentsatutako proiektuak, erdaraz gauzatutako asmoak, ezin dira izan nazio euskaldunaren garapenerako eta askapenerako.

Kulturalismoa-ren salaketa. Kulturalismoaren bide antzuak zertan diren ere Txillardegiren eskutik ikasi genuen. Lan honen hasieran genioen bezala, abertzalea oso abertzalea izango da beharbada, eta euskaltzalea oso euskaltzalea, agian, baina bide biak dira antzuak bakarka jardunda. Elkarren osagarri diren neurrian baizik ez baitira emankor eta eraginkor. Hala, politikari dagokionez kezkarik agertzen ez duten hizkuntzako kontu hutsak kritikatzeko, Le Calvez-en iturrira jo zuen Txillardegik:

“Gaur beren hizkuntzaren etorkizunaz arduratzen diren galestar guztiak ongi dakite eskastasun handiegian gelditzen dela kultur ekintza hutsa. Hizkuntza problema ez daiteke gainerako galestar problemen osotasunetik aparta: eta, beste aldetik, eskakizunak ez dira onartuak izanen, baldin eta ez bada politika mailako ekintza baten bidez¹²⁷”.

Euskararen arazoa, herriaren arazoa dela iradoki zigun Xalbador bertsolariak metafora eder baten bidez, bihotzaren eta gorputzaren artean ezin bereiziko lotura zegoela irudikatu zigunean. *Kulturalismoaren* bideak bide laburra dauka eginkizun hizkuntza minorizatuaren zoria ataka gaiztotik atera nahi duenean. Halako idealismo txar batek lausotzen du hizkuntza-militantearen begirada, hizkuntzaren inplikazio sozialak, nazionalak eta politikoak globalki hautematen ez dituenen. Nazio kulturalaren dimentsioan hasten eta bukatzen dira halakoaren joan-etorriak, nazio kultural orok nazio politikoaren babesa eta euskarria ezinbesteko baldin badu ere.

Balitzko elebitasun sozialaren ametsak, amets engainagarriak zirela, noren bide jakin genuen guk? Besteak beste, Txillardegik jarri gintuen jakinaren gainean, eta *elebitasuna* bezalako hitz erakargarriekin erne ibiltzeko ohartarazi gintuen. Ele biko egitura soziolinguistiko bakar baten baitako espazio nazional berean, eleen arteko lehia dagoela, eta lehiak

ezer gutxi daukala orekatik, simetriatik eta egonkortasunetik. Hona ohar-tarazpena:

“Galestar mugimenduaren zatirik gogorrena, S. Lewis-en inguruan zebilena, elebitasunaren aurka jartzen da, jokaera hori gaelera emeki-emeki suntsiarazteko jukutria bat besterik ez delakoz: ‘ni ere —zioen Lewis-ek 1962an, 71 urteetan— elebitasunean gaeleraren heriotza bake-tsu eta ohoretsu, eta malko eta lanturik gabeko ehorzketa ikusten duen gutxiengo burugabe horretakoa nauzue’. Eirwyn Morgan irakasleak esaten digu, berriz, ‘bi hizkuntzen elkar bizitzak, gehiengoaren garaipenean amaitzen du beti’. Ideia berdin-berdinak Williams irakaslearen lumatik ateratakoak: ‘Ez da munduan herri ttipi bateko bizilagunek, gobernatzen dituen nazio boteretsuaren hizkuntza mintzatzen jakin eta bereari eutsi diotenaren etsenplu bat bakarrik ere aurkitzen’”¹³.

Ezintasunaren lekukotasunez josirik dago mundua. Bi ele egitura nazional bakarreko espazio berean ez dira ondo ezkontzen, ez dira osagarriak, aurkariak bihurtzen dira. Zergatik gertatzen den hori horrela? Zergatik ez den posible bi hiztun herri bi hizkuntzetan espazio sozial berean modu osagarrian eta ez erauzgarrian antolatzea? Oso oker ez banago, botere-harremanen berezko izaera lehiakorak badu zerikusirik arazo horretan. Ez da borondate kontua.

Horretaz gainera, hizkuntzaren izaerak ere badu eraginik gatazka-egoera hori sortzeko mekanismoetan. Labur beharrez, esan dezagun, hizkuntzaren erabilerak errealitate sozialari identitate-modu bat itsasten diola, nolabait ere modu jakin batean ezaugarritzen duela errealitatea, eta, hori dela medio, hizkuntzaren jarduna errealitate sozialaren sortzailer den neurrian, errealitate soziolinguistikoko hori arrotza dela bere lekuan erabili nahi den bigarren hizkuntzarentzat. Bistan denez, hizkuntzaren definizioak baluke zer esanik eta zer azalduz elebitasun sozialaren ezin-kizunean.

Gales herriarekikoa bukatzeko, eskolako zigor-sistemaren berri eman zigun Txillardegik. Xehe-xehe eman ere:

“Eskoletako paretetan hau irakurri izan da eskuarki: *Welsh Not* (alegia, gaelerarik ez). Eta gure arteko eraztunaren zigorra, zurezko koilarearena bihurtu zen Galesen: zurezko kutunaren koilarea zeukan haurrak, gaeleraz hitz egiten entzuten zuen beste haur bati pasa ziezaiokeen, eta honek berebat beste bati, eta abar; eta horretara, azkenekoz koilare hura zeraman haurra, makilatu egiten zuen eskolako maisuak. Jokabide *demokratikoa* omen”¹⁴.

Biolentziak ez omen du ezertarako balio. Indarkeriak ez omen du inoiz ezer eraiki eta sortu. Ez omen du ezer konpontzen. Historiaren ikuspegi idealizatu eta abstraktu batek esanarazten dizkigun txorakeriak

Kulturalismoaren bide antzuak zertan diren ere Txillardegiren eskutik ikasi genuen. Lan honen hasieran genioen bezala, abertzalea oso abertzalea izango da beharbada, eta euskaltzalea oso euskaltzalea, agian, baina bide biak dira antzuak bakarka jardunda.

*Ele biko egitura
soziolinguistiko bakar
baten baitako espazio
nazional berean, eleen
arteko lehia dagoela, eta
lehiak ezer gutxi daukala
orekatik, simetrik eta
egonkortasunetik.*

ez dira nolana hikoak izaten, alajaina! Gaurko munduan gertatzen ari den hizkuntz etnozidio globalaren oinarrian ez dago biolentzia besterik. Munduko hizkuntza minorizatuen herio-bidean ez dugu bortxakeria besterik ikusten. Bortxa izan da, eta oraindik ere halaxe da, munduko herri, kultura, identitate eta hizkuntza menderatuen ordezkapenaren eta hondamenaren historia azaltzeko datu nagusia.

FINLANDIA: GARAIZ EGINDAKO LANAREN ARRAKASTA

Herri-mintzaira ahulduen berreskurapenak badu baldintza nagusi bat, eta baldintza hori, arestian esana dugun bezala, ordezkapenaren asimilazio-mailak erabakitzen du, besteak beste. Txillardegiren lehendabiziko aipu honek auzi horretara garamatza:

“Finlandia, hitz batez, suedieraren bitartez ezagutzen genuen, Finlandiako klase nagusiak arras suediar tuta zeudelako. Burgesak eta aito-na-emeak, hitz batez, suedieraz mintzo ziren; eta herri xeheak, lakueta-ko nekazariak batez ere, suomieraz. (...) Hala ere, nahiz Finlandiako (edo Suomiko) hirietan suomiera oso galdua izan, egoera ez zen inoiz izan gure Bilbon edo Gasteizen bezain txarra, esate baterako”¹⁵.

Beraz, Finlandian galdu gabe zegoen oinarrizko humus etnolingustikoa. Herri xehearen baitan bizirik zegoen ezinbestekoa den humus hori. Finlandiakoa ez zen munduko hizkuntza mehatxatu gehien egoera, ezta euskararena ere, Bilbo eta Gasteiz izendatzerakoan Txillardegik egiten duen aipamena lekuko. Nire irudiko, behar hainbat azpimarratzen ez dugun auzia da abiaburuko humus etnolingustikoaren bizitasuna eta kemena. Zergatik ote? Beldur garelako, inondik ere, kalkuluak eginda zer aterako zaigun jakiteko beldur. Ez da matematika-kontua, jakina, baina nekez egon daiteke adierazle hori baino zantzu esanahitsuagorik.

Bai, badakit, pentsamendu ezkorrek ez ditugula etxekalte baino. Badakit hil-kanpaiak jotzen aritzeak ez duela inor adoretuko, euskaltzaleak behar duena itxaropena dela. Bai, hori guzti hori badakit, psikologia sozialak hala agintzen du, baina, erne, errealitatea ez da gure nahierara moldatzen den izakia. *Errealistak* izan behar baldin badugu, izan gaitzen gauza guztietan, eta ez euskararen berreskurapenak eskatzen omen duen pazientzia eta mantsotasun kontuetan soilik.

Sinismena: horra hor hizkuntzen berreskurapenean ageri zaigun beste adierazle erabakigarri bat. Diglosiak eta higadurak erauzitako herri-mintzaira kultura-hizkuntza bihur daitekeela sinistu behar omen da. Honela kontatzen digu Txillardegik:

“Suomiera beren mintzabide eginez (eta ez lakueta baserritarren hizkera urrun eta ezezagun bat), kultura-hizkuntza egin behar zela sinis-

turik, lan gaitz bat egin zuen belaunaldi horrek Suomiko hizkera bilduz, aberastuz eta finkatuz. Perrot-en hitzez esateko: (*cette génération*) *a fait du finnois une langue du culture*"¹⁶.

Ez da corpusaren aldeko proiektuen eta planen arrakasta kontua. Ez da hizkuntza batu bat finkatu eta bere arauak sozializatzeko ahalegin hutsa ere. Areago doa Txillardegik hona ekarri digun korapiloaren irispena: hala-holako *intelligentsia* soil baten mugak gaindituta, belaunaldi berriek, indar betean baturik, bere egin behar dute jatorrizko herri-minutzaira ahuldua kultura-hizkuntzaren mailara eta funtzio-esparruetara jasotzeko nazio-proiektua. Masa-kontua da, ez aitzindari-taldetxo baten kontua, gurean bezala.

Hemen ez dago masa-mugimendurik euskara dagoen ataka esturik ateratzeko, hemen dagoenak ez du hala-holako *intelligentsia* (euskararen profesionalak, euskararekin alde edo moldez lotutako ekimen eta erakundeak) dei dezakegun giza taldetxo baten mugarik gainditzeko. Hemen euskararen arazoa, ez da hil ala biziko arazoa, enegarren lekuan dagoen buruhaustea baizik. Horixe da hitza, seguru aski: euskalduntasunaren auzia ez dugu bizi askapen-moduan, buruhauste moduan baizik.

Alderdi abertzaleen eginkizuna ere jorratu zigun Txillardegik. Nola jokatu zuten alderdi horiek Finlandian? Zertan zetzan beren praxi sozio-linguistikoa? Ikus dezagun:

"Lehen alderdi abertzalea 1863an sortu zen. Eta, hortik aurrera, bi mailatan eraman zen borroka; baina hizkuntza pizkundea inoiz ahuldu gabe. Borroka horretan bat egin zuten sozial demokratek eta suedieraz mintzo zen burgesiak. Hirietako marxistak abertzaleen kontra ari ziren, suomitar pizkunderan *chauvinismo burges-ttipia* besterik ez somatuz. (...) Hizkuntza-borrokan, horretara, suediar-tutako burgesiak eta *ezkertiar* ize-neko batzuk bat egin zuten"¹⁷.

Txillardegiren hitz horien oihartzuna ez da oraindik isildu nire belarrietan. Bide batez, aitor dezadan, ni neu ere marxismoaren lilurak irentsi zutenetako bat izan nintzela neurri batean behintzat, eta ez nintzela ohartu orduan Txillardegik egiten zizkigun kritiken zuzentasunaz. Are gehiago, *burges ttipiaren* salaketa hori nik neuk ere gin nion behinola Txillardegiri, orduan argitaratzen genuen *Zabal* aldizkarian. Joxe Luis, barba, gaztetako ausarkeria hura, ez genekien eta zer esaten genuen.

Nolanahi ere, alderdi politikoen jokabideak gorabehera, suomieraren zoria bideratua omen zegoen marko politiko nazionala aldatu baino lehen. Horren adierazle dira hitz laburrok:

"Suomieraren gainbehera gelditua zen politika-aldakuntzak izan baino askoz ere lehanagotik"¹⁸.

Gaurko munduan gertatzen ari den hizkuntz etnozidio globalaren oinarrian ez dago biolentzia besterik. Munduko hizkuntza minorizatuen herio-bidean ez dugu bortxakeria besterik ikusten. Bortxa izan da, eta oraindik ere halaxe da, munduko herri, kultura, identitate eta hizkuntza menderatuen ordezkapenaren eta hondamenaren historia azaltzeko datu nagusia.

*Errealistak izan behar
baldin badugu, izan
gaitzen gauza guztietan,
eta ez euskararen
berreskurapenak eskatzen
omen duen pazientzia eta
mantsotasun kontuetan
soilik.*

Funtsezko datua iruditzen zait herri-mintzaira murriztu eta gutxituen biziberritze-prozesuak ulertzeko. Esana dugu, gauza hauetan, bidea dela erabakigarria, ez begiz jotako helburu amesgarria. Hebreeraren salbuespena alde batera utzita, oinarritzko premisa honek ez du huts egiten: kontua ez da burujabetza politikoa lortzea, kontua da burujabetza nazionala lortzeko erabili den hizkuntza zein den.

Herri menderatuaren askapen prozesuaren funtsezko osagai hizkuntza bera baita, funtsezko *edukia* hizkuntza bera baita, nahiz eta gure arteko abertzale gehienek hizkuntza-*edukirik* ez atzeman prozesu horretan. Hizkuntza *forma* omen da, *edukiak* transmititzeko darabilgun ontzia edo axala alegia, eta, nonbait, faktore erabakigarria *edukiak* direnez gero, euskararen normaltze-kontuok marko politiko egokia lortzen duguneko esku-agarriagoak izango omen ditugu. Ohar gaitezen berriz ere hizkuntzaren definizio aldrebesak garamatzen. Errekara, bistan denez.

ONDORIO BATZUETAN AZTARRIKA

Bateko eta besteko hiztun-herrien zoria aztertuta, ondorio batzuk atera zituen Txillardegik orduko hartan. Kanpoko herri zapaldu batzuen hizkuntza egoera aztertzeak hainbat iritzi sendotu zizkion, hainbat zalantza uxatu, eta hainbat estrategiaren on-gaitzak bereizteko balio izan zion.

Filosofia handietan sartu gabe, lege nabarmen batzuk begiz jota zituen euskaltzale eta abertzale handiak:

a) “Hizkuntzaren pizkundera, politika estrukturalen aldaketaren aurretik etortzen da. Politika-borroka arrakastak, hizkuntza-pizkundera du oinarri, eta ez alderantziz. Gaur, beraz, gure betebeharrak premia-suenetako bat, euskararen aldeko lana da¹⁹”.

Aho batez onartu behar genuke euskaltzale guztiok aurreko *lege* hori. Abertzale guztiok ere bai, noski. Baina, zoritxarrez, ezkorra naiz zeharo abertzale gehienek jokabidearekin eta ez daukat itxaropen handirik horretan. Abertzale gehien-gehienek alderantziz egiten baitute egin beharrekoa: hots, egitura politikoak noiz aldatu zain daude nonbait, nork bere burua euskalduntzeko, eta, bidenabar, inguruko gizarte-guneak euskalduntzeko. Ilusio politiko faltsu baten eledunak bihurtu zaizkigu abertzale gehienak, eta bada ordua kargu hartzeko. Ez gaitezen ilusio-saltzailer horien liluramenduetan galdu.

b) “Ez ditut inolaz ere kondenatzen, politika-mailan egiten den, eta egin behar den borroka, legetasuna gure eskubideen alde jarri arte. Aitzitik, lan hori neure bihotz osoaz txalotzen dut. Baina aldakuntza hauek ekonomia-oinarri batzuk behar dituzten bezala, hizkuntza-oinarri bat ere behar dute²⁰”.

Marko politiko-nazionalaren aldaketa ezinbesteko jotzen du Txillardegik euskararen herria dagoen krisi ezin larriagotik ataretazko, baina hori ez da nahikoa. Hori modu jakin batean burutu behar den gizarte-jar-

duna eta prozesua da. Eta modu jakin horrek, eskakizun ekonomikoak dituen bezalaxe, eskakizun soziolinguistikoak ditu: nazioaren eraikuntza euskaraz hezurramitzen dugu, edo gainerakoan ez dago nazio euskaldunaren itxura izan lezakeen deusik sortzerik. Euskararen oinarria, marko politikoaren aldaketa bermatzen duen oinarria da, bestela, izan ere, delako *marko politikoaren aldaketa* herri euskaldunari sekula egindako iruzurrik handia izango da.

c) “Berriz diot: politika-askatasuna ez dela hizkuntza-pizkundearen ama, hizkuntza-pizkundearen *alaba* baizik. Hau garbi agertzen da, itzule-tara, herrien beherakoan: lehenago galtzen da askatasuna hizkuntza baino. Bidezkoa da beraz, alderantziz, herrien gorakoan ere, lehenago hizkuntza irabaztea, askatasuna baino. Txekoslovakian, Israelen, Quebecen, hori ageri da. Irlandan ez; baina zertara diren badakigu”²¹.

Euskal Herriaren askatasuna baino garrantzitsuago da euskalduntasuna berreskuratzea. Hori zioen Txillardegik. Eta ez zitzaion arrazoirik falta hori aitortzeko: izan ere, nor *askatuko* litzateke gure herrian, baldin eta politikoki *askatuko* bagina, baina oinarri etnolinguistikoak eta kulturak lehengo lepotik balute burua? Nor sentituko da gure artean *askatuta*? Ez dago esan beharrik, baina esan egingo dugu, badaezpada ere: hots, nazio-identitate espainolaren oinarrizko osagaietan —hizkuntza, kultura, mundu soziala...— murgilduta bizi diren *abertzaleak*. Euskararen herriarekin oinarrizko gauzak partekatzen ez dituen mundu abertzalea. Azken buruan, euskotarren sasi-askatasuna aski dutenak. Nazio euskalduna galdu eta estatu *independentea* xede dutenak.

d) “Herri-pizkunde guztietan, lehendabiziko abertzale belauna, hizkuntza arrotzaz baliatzen da. Bigarrena, aldiz, nazio-hizkuntzaz. Etorkizunari buruz, hortaz, bertako hizkuntza ez dakien belauna, atzeraturik gelditzen da laster; eta gelditze hori da hain zuzen aurrerapenaren termometro on bat. Erdaldun abertzaleak, jaun andreok, beste herri-pizkundeen argitan, atzean utzi behar dugun belauneko lagun dira. [...] Bigarren belaunak, eta ondorengoak, nazio-hizkuntza darabil non-nahi; hizkuntza-inperialismoaz eta garrantziaz ondo jabetu ondoren, herriaren bran-ka izanez”²².

Berez mintzo dira Txillardegiren ele zorrotzak. Ez dago iruzkin beharrik, ez dago zertan argitu beharrik. Belaunaldien arteko trantsizioa ondo asko zehaztu du nola izan behar duen. Eta gurean teorian bederen aspaldi iritsi ginen bigarren belaunaldiaren kate-mailara, baina euskararen kateak ez du funtzionatu, hondar-moduan izan ezik, eta hizkuntza arrotza etxekotua daukagu abertzale gehien-gehienen buru-bihotzetan. Nazio-hizkuntzak ez du hartu espainol egiten gaituen espainieraren tokia Hegoalde honetan. Eta abertzaleak bertan goxo, egun handiaren zain.

e) “Gauza hauek esatea ez da gure artean begi onez hartu ohi. Gure herria oso arlotea da oraindik, eta kulturaren gauzek ez dute batere izen onik. Karlismoaren esperientziak uste dugun baino sakonkiago ukitu gai-

“Hizkuntzaren pizkundera, politika estrukturalen aldaketaren aurretik etortzen da. Politika-borrokaren arrakastak, hizkuntza-pizkundera du oinarri, eta ez alderantziz. Gaur, beraz, gure betebeharrak premiatsuenetako bat, euskararen aldeko lana da”.

Euskal Herriaren askatasuna baino garrantzitsuago da euskalduntasuna berreskuratzea. Hori zioen Txillardegik. Eta ez zitzaion arrazoirik falta hori aitortzeko.

tu; eta Madrilen zain gaude behin eta berriz, gure aukera *kanpo-aldeko aldakuntzetan* balego bezala²³.

Bai, horixe! Gauza hauek esan beharra ez da batere gozagarria, espainolismoaren indarra gero eta errotuagoa denean. Haatik, ez dago atzera egiterik, eta Txillardegik orduan esan zituen gauzak, berriz ere esan beharra dago. Ez baitugu fitsik ere ikasi, dirudienez. Oraindik ere Madril lekin *negoziatu* beharra baita gure hitz totema. Ez dago besterik: negoziatzioa eta negoziatzioa. Madril *salbatuko* gaitu, izatez eta eskubidez dago-kiguna ematen digunean. Gezurra badirudi ere, oraindik ez gara jabetu zertan den egiazki nazio euskaldunaren benetako arazoaren muina. Oraindik *kanpo-aldeko aldakuntzetan* sinetsirik bizi gara. Urteak alferrik joan zaizkigu. Ez baitugu ikasi zertan den nazioaren muina zinez eta benetan. Oso estatu zaleak bihurtu gara, eta euskal nazioaren benetako auzia bertan behera utzi dugu.

f) “Kanpoko kondairaren argitan, beraz, gaur (eta orain dela 20 urte gutxienez) gure lanik emankorra eta bidezkoena ez da egonean egotekoa, politika-estrukturak aldatu zain. Gaur, eta orain dela hogeitatu urte gauza bera, gure lan nagusia nazio-kultura, eta hizkuntza bereziki, zabal-tzekoa da. Politika abstraktuak eta atzerriko sasi-politikakeria, aldiz, egin behar ez duguna da hain zuzen. Gaurko egunak etxe-barneko ereintza-egunak dira; eta ez inportazio-aroak²⁴.”

Aldeak alde, mezuaren zentzu orokorra erabat gaur-gaurkoa izan daiteke. *Politika abstraktua* salatzen ari zenean, esaterako, egungo politika abertzalearen abstrakzio-joera larrutzeko gogoia ematen digu: alegia, identitaterik gabeko politika abstraktua egiteko joera baitu abertzaletasunak oro har, politikagintza nazio-hizkuntza baten barruan egingo ez balitz bezala. Espainieraz egindako politika, politika espainola ez balitz bezala —jakina! zorioneko *edukiek* zuritzen dute beti abertzalearen praxi etnolinguistiko eta kultural arrotza—. Nazio-hizkuntzaren araberrako nazio-kulturak nazio-politikaren ezaugarria bere baitan txertatuta ez balerama bezala jokatzin du abertzaletasunak.■

OHARRAK

1. Euskaltzaindia, 1978.
2. *Hizkuntza minoritari batzuren azterketa kritikoa* in “Euskararen liburu zuria”, 1978, 565. or.
3. *Ibid.* 577. or.
4. *Ibid.* 577. or.
5. *Euskal Herritik erdal herrietara*, 1978, 292. or.
6. *Ibid.* 484. or.
7. *Ibid.* 292. or.
8. *Ibid.* 292. or.
9. *Ikus Itun Berritu Baterantz*, Eusko Jaurlaritzak, 2009, 58. or.
10. *Euskararen Liburu Zuria*, Euskaltzaindia, 1987, 582. or.

11. Ibid. 584. or.
12. Le Calvez, *Le Pays de Galles*, 184-185. orr.
13. Hizkuntza minoritari batzuren azterketa kritikoa in "Euskararen liburu zuria", Euskaltzaindia, 1978, 587. or.
14. *Liburu bat galesi buruz* in "Euskal Herritik erdal herrietara", 1978, 284. or.
15. *Euskararen arazoa beste hizkuntza-pizkundeen argitan* in "Euskal Herritik erdal herrietara", 1978, 480-481. orr.
16. Ibid. 482. or.
17. Ibid. 483. or.
18. Ibid. 483. or.
19. Ibid. 487. or.
20. Ibid. 487. or.
21. Ibid. 488. or.
22. Ibid. 489. or.
23. Ibid. 490. or.
24. Ibid. 490. or.

***Nazio-hizkuntzaren
araberaiko nazio-kulturak
nazio-politikaren
ezaugarria bere baitan
txertatuta ez balerama
bezala jokatzeko du
abertzaletasunak.***